# LARRAUL

HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

## HASIERAKO ONARPENA

2025eko apirila

**D.3 DOKUMENTUA**: JARDUKETA PROGRAMA



LARRAUL
udala

## *LARRAULGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA*

***D Dokumentua: Azterketa Ekonomikoa***

*D.3. Jarduketa programa*

*Larraul, 2025eko apirila*

***ZUZENDARITZA***

Arkitekto hirigileak:

Martin Ferran Zubillaga

Haritz Iparraguirre Yarza

Zaloa Las Hayas Madariaga

Ray Mendiburu Abad

***IDAZKETA***

Arkitekto hirigileak

HIRIGRAMA

Abokatu hirigilea:

Maribi Joaristi Olariaga

***LANKIDETZAK***

Ingurumen-taldea: Ekolur. SLP

***IKUSKAPEN TEKNIKOA ETA UDAL INFORMAZIOA:***

Udal arkitekto tekniko arduraduna: Eba Erkizia

***SUSTATZAILEA***

LARRAUL udala

Larraulgo udala

## DOKUMENTUEN AURKIBIDEA

**A. MEMORIA**

A.1 Memoria deskribatzailea eta justifikatzailea

A.2 Herritarren partaidetzari buruzko memoria

**B. HIRIGINTZAKO ARAUDIA**

B.1 Hirigintzako arau orokorrak

B.2 Hirigintzako Arau Partikularrak

B.3 Babes-arauak eta katalogoa

B.4 Hirigintzako ordenantzak

**C. PLANOAK**

**D. AZTERKETA EKONOMIKOA**

D.1 Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterketa

D.2 Jasangarritasun ekonomikoaren memoria

D.3 Jarduketa programa

**E. ERAGIN-AZTERKETAK**

E.1 Ingurumen Azterketa Estrategikoa (IAE)

E.2 Eragin akustikoaren azterketa (EAA)

E.3 Genero-eraginaren azterketa (GEA)

E.4 Eragin Linguistikoaren Azterketa(ELA)

E.5 Haurtzaroaren, nerabezaroaren eta familiaren gaineko eraginaren azterketa (HNFEA)

I. PROGRAMAZIOA ..... 1
I.1. SARRERA ..... 1
I.2. ZUZKIDURA PUBLIKOAK GAUZATZEKO PROPOSAMENEN PROGRAMAZIOA ..... 2
I.2.1 ESPAZIO LIBREEN ARLOKO JARDUKETAK ..... 2
I.2.2 EKIPAMENDUEN ARLOKO JARDUKETAK ..... 2
I.3. HIRIGINTZA-PROPOSAMENAK ETA GARAPENAK GAUZATZEKO PROPOSAMENEN PROGRAMAZIOA ..... 2
I.3.1 ZUZKIDURAKO JARDUERAK ..... 2
I.3.1 JARDUERA INTEGRATUAK ..... 3
I.4. LURZORU-ERRESERBEN PROGRAMAZIOA ..... 3

# I. PROGRAMAZIOA

## I.1. SARRERA

Dokumentu honen helburua da Plan Orokorrean planteatutako jarduerak garatzeko eta gauzatzeko prozesuaren programazio-irizpideak zehaztea, indarrean dagoen hirigintza-legerian zehazten den bezala.

Oro har, hirigintza-antolamenduko eremu bakoitzaren fitxa xehatuetan ezartzen dira jarduketak garatzeko epeak.

Ondoren, planifikatutako hirigintza-proposamenak eta -garapenak gauzatzeko ezarritako irizpideak adierazten dira.

## I.2. ZUZKIDURA PUBLIKOAK GAUZATZEKO PROPOSAMENEN PROGRAMAZIOA

### I.2.1 ESPAZIO LIBREEN ARLOKO JARDUKETAK

Ez da proposatzen sistema orokorreko sareko espazio libreekin zerikusia duten jarduketak egiteko eperik. Epe hori bat etorriko da planaren bizitegi-garapenarekin eta horrek dakartzan ongizate-helburuak lortzearekin.

### I.2.2 EKIPAMENDUEN ARLOKO JARDUKETAK

Ez da proposatzen sistema orokorreko sareko ekipamendu publiko eta pribatuekin zerikusia duten jarduketak egiteko eperik. Epe hori bat etorriko da planaren bizitegi-garapenarekin eta horrek dakartzan ongizate-helburuak lortzearekin.

## I.3. HIRIGINTZA-PROPOSAMENAK ETA GARAPENAK GAUZATZEKO PROPOSAMENEN PROGRAMAZIOA

Oro har, Plan Orokor honen eta haren proposamenen proiekzio-epea hamabost bat urtekoa izango da, behin betiko onartzen denetik kontatzen hasita.

Testuinguru orokor horretan, Planak hiri-bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko proposatzen duen estrategia lehendik dagoen hiri-bilbean integratuta dauden lurzoruak berrerabiltzean oinarritzen da, bai eta haren ondoko lurzoru berriak okupatzean ere.

Hiri-lurzoruan aurreikusitako hirigintza-garapen berriek ez dute elkarrekiko mendekotasun funtzionalik, eta ez dute lotura programatiko zuzenik behar. Hala ere, eremu urbanizagarrietan (HAE 02 Zabaleta Txiki Zelaia eta HAE 03 Beobidegain Behekoa) xedatzen da bi garapenak mailaka egingo direla, eta denbora-tarte bat ezarriko dela haien artean. Neurri honen helburua da herritarren parte-hartzea behar bezala kudeatzea, udalerriko gizarte- eta kultura-dinamiketan sartzen lagunduz, eta hizkuntza-eraginaren ebaluazioan jasotako neurriak betez.

Ondorioz, lehenengo sektoreko azken eraikuntza amaitu (HAE 02 edo HAE 03) eta hurrengo eremuko urbanizazio-lanak egin bitartean, gutxienez lau urteko epea igaro beharko da.

### I.3.1 ZUZKIDURAKO JARDUERAK

Plan honetan jasotako zuzkidura-jarduketetan eraikitzeko lizentzia eskatzeko epea lau urtekoa izango da.

### I.3.1 JARDUERA INTEGRATUAK

Oro har, hirigintzako plan honetan jasotako jarduketa integratuetan urbanizatzeko jarduketa programa aurkezteko epea zortzi urtekoa izango da.

Hala ere, eta aurrez adierazitakoaren arabera, lurzoru urbanizagarrian aurreikusitako hirigintza-garapenen artean denbora-tarte bat ezartzen da, eta tarte horrek bi jarduketetako baten egikaritzea geroratuko du. Beraz, bigarren jarduketari dagokion urbanizazio proiektua aurkezteko epea sei urtekoa izango da, lehen jarduketaren urbanizazio proiektua onesten denetik hasita.

## I.4. LURZORU-ERRESERBEN PROGRAMAZIOA

Dokumentu honetan sartzen da, antolamendu-planoen artean, balio ekologiko handiko basoak erreserbatzeko proposamena, dagoen landarediaren azterketatik eta horrek azpiegitura berdearekin duen zuzeneko loturatik sortua.

Proposamen horretan, baso horiek lortzeko lehentasun-ordena ezartzen da. Hala ere, lurzoruen erreserba eraginkorra udal erabakiaren bidez egin beharko da, erreserben mugaketari buruzko 2/2006 Legearen 120. artikuluaren arabera.